

## Gobernu Batzarraren Akta

2025eko urtarrilaren 27a

### Bildutakoak:

Akta Zenbakia <b>00000001</b>		
<b>Patxi Ibarguren Etxeberria</b>	<b>Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik</b>	Eguna <b>2025/01/27</b>
<b>Pepe Iparraguirre Balda</b>	<b>Andoaingo Udaletik</b>	Iraupena
<b>Iratxe Begiristain Otegi</b>	<b>Usurbilgo Udaletik</b>	-
<b>Agurtzane Ubillos</b>	<b>Mercader Urnieta</b>	
<b>Nuria Fernández Castrillo</b>	<b>Lasarte-Oriako Udaletik</b>	
<b>Xabier Urdangarin Lasa</b>	<b>Astigarragako Udaletik</b>	

### Asistentzia teknikoa:

<b>Julen Gorrotxategi</b>	<b>Mungia</b>	<b>Idazkari-Kontuhartzzailea</b>
<b>Helene del Río Laboa</b>		<b>Zuzendaria</b>

### Gai Zerrenda

- 1.- 2024/12/16(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.
  - 2.- 2024ko memoriaren aurkezpena
  - 3.- Komunikazio eta harremanetarako teknikariaren funtzoia adostea
  - 4.- Gipuzkoa mailako iraunkortasun mahaien inguruko erabakia hartzea
  - 5.- Elkar Ekin 2025-2026 egitasmoa azaltzea
  - 6.- Turismoaren inguruko hurrengo pausuak adieraztea
  - 7.- Galdera, erregu eta proposamenak.
- 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 16/12/2024.
  - 2.- Presentación de la memoria del 2024
  - 3.- Acordar las funciones de la persona técnica de Comunicación y relaciones
  - 4.- Tomar la decisión sobre las mesas de sostenibilidad a nivel de Gipuzkoa
  - 5.- Exposición del proyecto Elkar Ekin 2025-2026
  - 6.- Señalar los siguientes pasos en torno al Turismo
  - 7.- Ruegos, preguntas y propuestas.

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

**1.- 2024/12/16(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2024/12/16 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak, aho batez, ontzat eman du.

**2.- 2024ko memoriaren aurkezpena**

Puntu honetarako Zuzendariak aldez aurretik bilerako partaide guztiekin elkarbarnatu zuen 2024ko memoria osoa eta zehatza. Hala ere, bilera honetarako Power Pointean dokumentu oso horren laburpena aurkeztu du denon aurrean (Power Point hori Intraneten igoko da).

Aurkezpen honetan, Mankomunitateko departamentu bakoitzeko 2024. urteko egitasmoak eta lortutako adierazleak laburbildu ditu, hau da, Enplegu eta Prestakuntzarenak, Enpresa eta Sustapenarenak (hemen bereizi ditu Ekintzaileta zerbitzua eta Enpresa zerbitzua) eta Turismoarenak. Bukatzeko, Gobernantza mailan egindako lanaren adierazleak ere adierazi ditu, eta horretarako bereizi ditu Gipuzkoa mailako Gobernantza eta Beterri Buruntzakoa.

Esan behar da, enpresekin lotutako iraunkortasunaren egitasmoak eta adierazleak Enpresa eta Sustapena departamentuaren egitasko eta adierazleetan sartuta daudela, eta gainontzeko iraunkortasuneko gaiak 2024ko jarduera memorian, eranskin gisa, jasota daudela nolabait udazkenean hartu zen erabakia errespetatu eta lanketa sistemari jarraikortasun bat emateko.

Aurkezpena bukatu denean, ordezkari guztiekin begi onez ikusi dute aurkeztutakoa eta eskertu dute egindako lana, gainera, datu hauek horrela jasota eta azalduta, gure jarduera hobeto ulertzeko eta gainbegiratzeko aukera dutela esan dute. Lehendakariak adierazi du beste memoria eta adierazleen historikorik jaso ez dugunez aurten erabilitako memoria, adierazle eta euskarriak mantentzea aurrerantzean, lagungarri izango delakoan. Gobernu batzordeko kideek bat egin dute proposamenarekin.

Lehendakariak gehitu du Mankomunitatea benetan martxan egon den lehenengo urtea izateko oso emaitza onak direla.

Andoaingo ordezkariak galdu du ea aurkezen hau bere udaleko gainontzeko alderdiekin banatzeko aukera duen eta Zuzendariak baietz erantzun dio, gainera, gustatuko litzaiguеela udal guztiekin beraien udalean hau elkarbanatzea denak pixkanaka gure jardueraren berri izan dezaten. Astigarragako ordezkariak adierazi du beraiek toki garapeneko sailarekin Mankomunitateko Informazioa partekatzeko ohitura dutela.

Azkenik, Zuzendariak gehitu du gure webgunean argitaratzeko asmoa dugula, eskuragarri egon dadin.

### **3.- Komunikazio eta harremanetarako teknikariaren funtzioko adostea**

Lehendakariak aipatu du ordezkari guztiekin partekatutako Komunikazio eta harremanetarako teknikariaren eginkizunak hasierako proposamena besterik ez dela, udazkenean postuak izandako eraldaketaren inguruko definizioa adosteko. Zirriborro bat ekarri nahi izan dela komunikazio alorreko funtziokoa, gero, horren gainean, udal-ordezkari bakoitzak ekarpenak egin ditzaten horien gainean, bereziki euskara eta itzulpengintza kontuekin. Ekarpen horiek egiteko otsaila arte eman da epea, hau da, asko jota, datorren otsailaren 24n egingo den Goberu Batzarrerako, bertan azken definizioa adosteko.

Lehendakariak aipatu du agian komenigarria dela teknikari honek itzulpengintzako, euskarako... lanak egitea.

Astigarragako ordezkariak gehitu du buelta bat emango diola baina, momentu honetan okurritzen ari zaiola teknikari honek, agian, beharrezkoak diren hurrengo lan hauek egin ditzakeela:

- Mankomunitate barruko euskara-plana lantzea
- Hizkuntza-irizpideen ardura izatea
- Eskualdeko garapenean ere sartu litekeela enpresei eta ekintzaileei aholkuak ematea beraien entitateetan euskara nola jorratu

Hau guztia esanda, Lehendakariak berriro gogoratu du ekarpenak idatzita ekar ditzatela, asko jota, datorren otsailaren 24n egingo den Gobernu Batzarrera.

### **4.- Gipuzkoa mailako iraunkortasun mahaien inguruko erabakia hartzea**

Lehendakariak azaldu du aurreko urte bukaeran iraunkortasun saila kentzea erabaki zenez Enpresa eta Sustapen departamentuan sartzeko, horrek, nahitaez, ondorio batzuk dakartzala, eta puntu honen helburua ondorio horien aurrean nola jokatuko dugun adostea da.

Ondorio horiek idatzita pasa zaizkie udal-ordezkari guztiei, dokumentuak 3 mahai edo lanketen inguruko informazioa jasotzen dituelarik:

- a) **Energia.** Puntu honetan aipatu zuen GFAk hitzarmen bat sinatzen duela urtero Gipuzkoako eskualde bakoitzarekin eta diru kopuru bat eskaintzen diotela (normalean, 55.000€) Garapen Agentzia eta Mankomunitatei energia arloan ekintza ezberdinak egiteko.

Puntu honetan Zuzendariak gehitu du GFAkoak jakinaren gainean daudela gure iraunkortasun departamentua desagertu dela eta orain Iraunkortasuna enpresen ikuspegitik bakarrik lantzen dugula. Hortaz, Udal-ordezkariek jasangarritasun energetikoaren Gipuzkoako lanketan jarraitu nahi badute, GFArekin landuko dugu Beterri-Buruntzan enpresei begira bakarrik lantzea. Horretarako derrigorrezkoa izango da GFAk eskualde guztiei eskatzen dizkien konpromezuak hartzea erabakitzea: teknikari bat izendatzea jasangarritasun interlokutore bezala (enpresa eta iraunkortasuneko teknikaria izango litzateke), eskualdean gai horren inguruko mahaia izatea eta eskualdeko energia plana onartzea.

Azken puntuaren aurrean Astigarragako ordezkariek posible dela adierazi du, Udal bakoitzak energia plana duela, puntu batean edo bestean, beraz, GFArri eskualdeko enpresen inguruko energia plana landuko dugula esan diezaiokegula.

Udal ordezkarri guztiak egokia ikusi dute planteamendua, beraz, zentzu horretan GFArri gure asmoa plazaratzea onartu dute. Lasarte-Oriako ordezkarriak, ordea, bera negoziazioetan egon ez zela eta astebeteko epea emateko eskatu du, bere Udalean esandakoa landu ahal izateko.

- b) **Mugikortasuna.** Bidegorri sarearen parte handi baten eskumena GFArena da eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldaren Arloko Planean (LAP) oinarritzen dira horren baitan oinarritzen diren proiektuak. Bizikleta Bideen LAPa 2024n eguneratu da eta horren berri Mankomunitateak Bizikletaren Kontseiluan jaso du eta Udalei jakinarazi zaie banakako bileretan eta Iraunkortasun-mahai politiko-teknikoan.

Gainera, Beterri-Buruntza Mankomunitatea Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluko kide da eta iraunkortasun teknikaria da bertako ordezkarria. Beraz, Bizikleta Kontseiluko bi bileretan parte hartu du 2024ean eta 2025ri begira gure Mankomunitateko partaidetza definitu beharko litzateke.

Puntu honetan udal-ordezkariek erabaki dute bilera horietara gure Mankomunitatea joaten jarraitzea eta gero, informazio hori, gaiaren eta eskumenen arabera, Udalekin partekatzea eta lanketa beraiei egokitzea edo batzordera eraman eta zer egin behar den erabakitza.

- c) **Klima aldaketa.** Lehendakariak adierazi du Naturklima eta GFAko eskaerei erantzunez Beterri- Buruntza Mankomunitatea “Climate Social Labs” proiektuan lankidetzen aritu dela, clima aldaketari buruzko herritarren kontzientziazioaren alorrean. Lanketa hau eskualdeka bideratu nahi dute, eskualdeko interlokutorearekin, baina publikoa herritarrak dira.

Gure Mankomunitateak hasierako galdelegi eta bileretan parte hartu du, beraz, 2025ra begira proiektuaren lankidentzan aritzeko prestutatsuna argitu beharra dago.

Puntu honetan udal-ordezkariek erabaki dute hemendik kanpo gelditzea, udazkenean Mankomunitatea iraunkortasun alorrean enpresengana bideratuko zela erabaki baitzen.

- d) Nahiz eta dokumentuan jasota ez agertu, eskualdeko Taxien bilera batera deitu dute Zuzendaria, eta bertara joateko zalantza agertu du.

Azken puntu honetan erantzun diote Urnietako alkatearekin hitz egiteko bera baita orain eskualdeko Taxien bileraren burua eta seguraski berak jakingo duela zeri buruz izango den deitutako bilera eta gurekin nolabaiteko lotura duen edo ez. Zuzenean Zuzendaria bilerara joateko erabakia Urnietako alkatearen esku uzten du batzordeak puntu honetan.

Azkenik, aipatu beharra dago irizpide orokor gisa onartu dutela orokorrean bilera eta gainontzeko ekitaldietara gure Mankomunitatea bertaratzea eskualdeka deitzen dituzten bileretan, informazioa jasotzeko, eta ondoren guztiokin elkarbanatzeko, ondoren, erabakia hartzeko zer egin jasotako informazioarekin.

#### **5.- Elkar Ekin 2025-2026 egitasmoa azaltza**

Zuzendariak 2025-2026. Urtean jorratuko dugun Elkar Ekin programa azaldu du labur-labur. Aldez aurretik udal-ordezkari guztiei helarazi zaie dokumentua.

Azalpena bukatutakoan denek begi onez ikusi dute programa honetan jorratuko dena eta gainera Andoingo ordezkariak gehitu du gustatuko litzaiokeela informazio gehiago jasotzea Emausek eta Arozgik egingo duten itinerarioan arotzeriaren gainean. Urnietako ordezkariak esan du Emausen kontaktua pasako diola beraiekin hitz egiteko.

## **6.- Turismoaren inguruko hurrengo pausuak adieraztea**

Lehendakariak hainbat gauza aipatu ditu Turismoaren inguruan:

- Azaldu du duela hiru aste Turismo teknikari berria dugula gurekin lanean.
- Gure Mankomunitateak Fiturren presentzia mantendu genuela aipatu du nahiz eta gure eskualdeko turismoaren inguruko materiala oso zaharkituta dagoela aipatu du eta horregatik hori berritu behar dugula esan du. Begi onez ikusi dute egunereketa.
- Gehitu du aurreko urtean Bizi Biziki enpresa kontratatu genuela eskualdeko turismo hausnarketa egiteko. Hausnarketa hori bukatzean dago eta prozesuari bi modutan eman diezaiokegula amaiera. Aholkularitza enpresak jardunaldi bat egitea planteatzen du, politiko-teknikoa eta orain arte parte hartu duten eragileekin, baina Lehendakariak bestela itxiera barne mailan batzarrean eman diezaiokegula planteatzen du, horrela aholkularitza etxearekin enkargua amaitu, eta, ondoren, udaberri aldera jardunaldia antolatu.

Andoingo ordezkariak lehenengo barne mailan itxiera ematea begi onez ikusi du. Beste ordezkari batzuek ere ideia honekin bat egin dute.

Denen oniritziarekin adostu dute lehendabizi eskualdeko turismoko hausnarketa horien ondorioak gurekin elkarbanatzea eta ikustea. Hortaz, datorren otsailaren 24ko Gobernu Batzarrera ekarriko da turismo hausnarketari amaiera emateko eta Udalen onarpena bilatu eta lanean martxan jartzeko.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaidea presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

## **7.- Galdera, erregu eta proposamenak.**

- Lehendakariak 2025. Urteko Gobernu Batzarreko eta Batzar Orokorreko bileren datak zehazten saiatu da. Guztion proposamenak entzunda, ondorio honetara iritsi gara:
  - Gobernu Batzarrak hurrengo egunetan egingo dira: otsailaren 24n, martxoaren 24n, apirilaren 7n (baldin eta behar bada), maiatzaren 5n eta 19n (ikusiko da ea bi aukeretan beharra dagoen), ekainaren 9n, uztailaren 14n, irailaren 22n, urriaren 20n, azaroaren 10n eta abenduaren 15n
  - Batzar Orokorra azaroaren 24n egiteko aurreikusia dago, nahiz eta idazkari-kontuhartzaileak gehitu duen lehenengo seihibekoan beste Batzar

Orokor bat egin beharko dela seguruenik 2024ko aurrekontuen likidazioa adosteko.

- Bukatzeko, Lehendakariak gehitu du Beterri Errutz enpresari, azkenean, eta dena ondo badoa, Hernaniko udalak lagako diola lokala, Karabel auzoan kokatuta dagoena, bere langileentzat eta materialentzat.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 14:09h zirenean. Idazkari-kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriaz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

**O.E., / Vº Bº**  
**Lehendakaria**

**Idazkari-kontuhartzailea**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 16/12/2024.**

Una vez leída, en primer lugar, el acta correspondiente a la sesión de fecha 16/12/2024, la Presidenta somete a votación su aprobación, que es aprobada por unanimidad por la Junta de Gobierno.

**2.- Presentación de la memoria 2024**

Para este punto la Directora repartió previamente a todos los participantes de la reunión, una memoria completa y detallada de 2024. De todas maneras, para esta reunión ha presentado ante todos un resumen de ese documento completo en Power Point (este Power Point se subirá en la Intranet).

En esta presentación resume los proyectos y los indicadores alcanzados en el año 2024 de cada uno de los departamentos de la Mancomunidad, es decir, los de Empleo y Formación, Empresa y Promoción (aquí distingue entre Servicio de Emprendimiento y Servicio de Empresa) y Turismo. Por último, señala también los indicadores del trabajo realizado a nivel de Gobernanza, distinguiendo para ello entre Gobernanza a nivel de Gipuzkoa y de Beterri-Buruntza.

Hay que decir que los proyectos e indicadores de sostenibilidad relacionados con las empresas están incluidos en los proyectos e indicadores del Departamento de Empresa y Promoción, y que el resto de temas de sostenibilidad están recogidos en la memoria de

actividades 2024, a modo de anexo, para respetar la decisión que se adoptó en otoño y dar continuidad al sistema de elaboración.

A la finalización de la presentación, todos los representantes valoran positivamente lo presentado y agradecen el trabajo realizado, además, señalando y explicando así estos datos, tienen la oportunidad de comprender y supervisar mejor nuestra actividad. La Presidenta señala que dado que no se han recogido otras memorias e históricos de indicadores, la memoria de este año nos servirá para las próximas. Los miembros de la junta de gobierno se suman a la propuesta.

La Presidenta añade que realmente son muy buenos resultados para que sea el primer año de funcionamiento de la Mancomunidad.

El representante de Andoain pregunta si tiene la posibilidad de repartir esta presentación con el resto de partidos de su ayuntamiento y la directora le contesta que sí, además, nos gustaría que todos los ayuntamientos compartieran esta presentación en su ayuntamiento para que poco a poco todos conozcan nuestra actividad. El representante de Astigarraga señala que ellos tienen la costumbre de compartir Información de la Mancomunidad con el departamento de desarrollo local. Por último, la directora añade que tenemos intención de publicarlo en nuestra web para que esté disponible.

### **3.- Acordar las funciones de la persona técnica de Comunicación y relaciones.**

La Presidenta señala que las funciones de Técnico/a de Comunicación y Relaciones compartidas con todos los representantes no son más que una propuesta inicial para consensuar la definición de la transformación en otoño del puesto. Se ha querido traer un borrador con las funciones en materia de comunicación para que, posteriormente, cada representante municipal realice sus aportaciones a las mismas, especialmente en materia de euskera y traducción. El plazo para realizar estas aportaciones se ha dado hasta febrero, es decir, como mucho, para la Junta de Gobierno que se celebrará el próximo 24 de febrero, en la que se acordará la definición final.

La Presidenta comenta que quizás sea conveniente que este/a técnico/a realice labores de traducción, euskera...

El representante de Astigarraga añade que le va a dar una vuelta pero que en este momento se le está escurriendo el bulto para que este técnico pueda realizar los siguientes trabajos necesarios:

- Elaboración del plan interno de euskera.

- Responsabilizarse de los criterios lingüísticos.
- Asesorar a empresas y emprendedores en el desarrollo comarcal sobre cómo trabajar el euskera en sus entidades.

Dicho todo lo cual, la Presidenta ha vuelto a recordar que las aportaciones se trasladan por escrito a la Junta de Gobierno que se celebrará como mucho el próximo 24 de febrero.

#### **4.- Tomar la decisión sobre las mesas de sostenibilidad a nivel de Gipuzkoa**

La Presidenta expone que dado que a finales del año pasado se decidió suprimir el departamento de sostenibilidad para integrarlo en el de Empresa y Promoción, ello conlleva necesariamente una serie de consecuencias, y el objetivo de este punto es consensuar cómo actuaremos ante estas consecuencias.

Estas conclusiones se han trasladado por escrito a todos los representantes municipales, en el documento se recoge información sobre 3 mesas o trabajos:

a) **Energía.** En este punto comentó que la DFG firma un convenio anual con cada una de las comarcas de Gipuzkoa y ofrecen una cantidad de dinero (normalmente 55.000 €) a las Agencias de Desarrollo y Mancomunidades para realizar diferentes acciones en materia energética.

En este punto la Directora añade que los de la DFG son conscientes de la desaparición de nuestro departamento de sostenibilidad y que ahora abordamos la Sostenibilidad sólo desde el punto de vista empresarial. Por lo tanto, si los representantes municipales quieren continuar en la elaboración de la sostenibilidad energética en Gipuzkoa, trabajaremos con la DFG en Beterri-Buruntza sólo de cara a las empresas. Para ello será necesario decidir asumir los compromisos que la DFG exige a todas las regiones: designar a un técnico como interlocutor de sostenibilidad (sería técnico de empresa y sostenibilidad), contar con una mesa sobre este tema en la comarca y aprobar el plan energético comarcal.

Ante el último punto el representante de Astigarraga señala que «es posible, que cada Ayuntamiento tiene un plan energético, en un punto u otro, así que podemos decir a la DFG que vamos a trabajar el plan energético en torno a las empresas de la comarca.

Todos los representantes municipales han visto adecuado el planteamiento, por lo que han aceptado hacer pública nuestra intención a la DFG en este sentido. La representante

de Lasarte-Oria, sin embargo, pide que se dé un plazo de una semana porque que ella no estuvo en las negociaciones y poder trabajar lo dicho en su Ayuntamiento.

b) **Movilidad.** Gran parte de la red de bidegorris es competencia de la DFG y los proyectos que se basan en ella se basan en el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa (PTS). El PTS de Vías Ciclistas se ha actualizado en 2024 y la Mancomunidad lo ha recibido en el Consejo de la Bicicleta y se ha informado a los Ayuntamientos en reuniones individuales y en la Mesa Político-Técnica de Sostenibilidad.

Además, la Mancomunidad Beterri-Buruntza es miembro del Consejo de la Bicicleta de Gipuzkoa y su representante es la técnica de sostenibilidad. Por lo tanto, ha participado en dos reuniones del Consejo de la Bicicleta en 2024 y de cara a 2025 habría que definir la participación de nuestra Mancomunidad.

En este punto los representantes municipales han decidido que nuestra Mancomunidad siga acudiendo a estas reuniones y luego, que esa información, según la materia y las competencias, se comparta con los Ayuntamientos y que la elaboración se les ajuste a ellos o que se lleve a comisión y se decida qué hay que hacer.

c) **Cambio climático.** La Presidenta ha señalado que en respuesta a las demandas de Naturklima y DFG, la Mancomunidad Beterri-Buruntza ha colaborado en el proyecto "Climate Social Labs" en materia de concienciación ciudadana sobre el cambio climático. Quieren enfocar esta elaboración por comarcas, con el interlocutor de la comarca, pero el público son los ciudadanos.

Nuestra Mancomunidad ha participado en los cuestionarios y reuniones iniciales, por lo que de cara a 2025 hay que aclarar su disposición a colaborar con el proyecto.

En este punto los representantes municipales han decidido quedarse fuera de aquí, ya que en otoño se acordó que la Mancomunidad se destinaría a empresas en materia de sostenibilidad.

d) Aunque no consta en el documento, la Directora ha sido convocado a una reunión de Taxis de la comarca, a la que ha mostrado su duda de acudir.

En este último punto le responden que hable con el alcalde de Urnieta que, ahora, es el que preside la reunión de Taxis de la comarca y que seguramente él sabrá sobre qué va a ser la reunión convocada y si tiene algún tipo de vinculación con nosotros. La decisión de que la Directora acuda a la reunión se deja en manos del alcalde de Urnieta.

Por último, hay que señalar que como criterio general se ha aceptado que nuestra Mancomunidad acuda a las reuniones y demás actos que convoquen por comarcas, para informarse y después compartir con todos, para posteriormente tomar la decisión de qué hacer con la información recibida.

**5.- Exposición del proyecto Elkar Ekin 2025-2026**

La directora explica brevemente el programa Elkar Ekin 2025-2026 que abordaremos en el año. Previamente se ha hecho llegar el documento a todos los representantes municipales.

Una vez finalizada la exposición todos han visto con buenos ojos lo que se va a tratar en este programa y además el representante de Andoain añade que le gustaría recibir más información sobre carpintería que van a realizar Emaús y Arozgi. El representante de Urnieta dice que le pasará el contacto de Emaús para hablar con ellos.

**6.- Señalar los siguientes pasos en torno al turismo**

La Presidenta comenta varias cuestiones relacionadas con el Turismo:

- Explica que hace tres semanas tenemos al nuevo técnico de Turismo trabajando con nosotros.
- Comenta que mantuvimos la presencia de la Mancomunidad en Fitur a pesar de que el material de turismo de nuestra comarca está muy obsoleto y por eso tenemos que renovarlo. Han visto con buenos ojos la actualización.
- Añade que «el año anterior contratamos a la empresa Bizi Biziki para hacer una reflexión turística de la comarca. Esta reflexión está a punto de terminar y podemos poner fin al proceso de dos maneras. La consultora plantea la celebración de una jornada, político-técnica y con los agentes que han participado hasta ahora, pero la Presidenta plantea que si no, podemos darle el cierre en la asamblea a nivel interno, así terminar el encargo con la consultora, y después organizar la jornada hacia la primavera.

El representante de Andoain ve con buenos ojos que primero se dé el cierre a nivel interno. Otros representantes también se han sumado a esta idea.

Con el visto bueno de todos han acordado en primer lugar compartir y ver con nosotros las conclusiones de estas reflexiones turísticas comarcas. Por lo tanto, se traerá a la Junta de Gobierno del próximo 24 de febrero para poner fin a la reflexión turística y buscar la aprobación de los Ayuntamientos y ponerlos en marcha.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar a la sección de Ruegos, preguntas y propuestas y tras considerar urgente el debate del asunto, por unanimidad y, por tanto, con el quórum

de la mayoría absoluta de los junturos, se adoptaron los siguientes acuerdos

**7.- Ruegos, preguntas y propuestas.**

- La Presidenta ha tratado de concretar las fechas de las reuniones de las Juntas de Gobierno y de la Asamblea General del año 2025. Escuchando las propuestas de todos, hemos llegado a la siguiente conclusión:

- Las Juntas de Gobierno se celebrarán los días 24 de febrero, 24 de marzo, 7 de abril (si procede), 5 y 19 de mayo (se verá si es necesario en ambas opciones), 9 de junio, 14 de julio, 22 de septiembre, 20 de octubre, 10 de noviembre y 15 de diciembre.
  - La Asamblea General está prevista para el 24 de noviembre, si bien el Secretario-Interventor añade que en el primer semestre habrá de celebrarse probablemente una nueva Asamblea General para acordar la liquidación de los presupuestos de 2024.
- Por último, la Presidenta añade que el Ayuntamiento de Hernani cederá un local ubicado en el barrio de Karabel a la empresa Beterri Errotuz, para su personal y material.

Y a falta de más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión ordinaria a las 14:09 horas. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen de las Entidades Locales, una vez redactado por el Secretario-Interventor el presente documento correspondiente a la sesión, leído y visto bueno por la Presidenta, ambos lo suscriben.

Y de cuanto antecede, doy fe.

**O.E./VºBº  
La Presidenta**

**Secretario-Interventor**



## **Sinaduren laburpena / Resumen de firmas**

**Titulua / Título:**

2025BG010001-Akta Ofiziala/Acta Oficial (BETERRI BURUNTZA)